

**BIZITEGI ERAIKINAK
B MAILA****GETARIA 2 HIRUKOIZTUA****Ramon Kortazar, 1916.****Deskribapena**

Etxadiaren bizitegi zatian ale bakarreko esku hartzea denez, eraikuntzak nolabaiteko monumentu izaera hartzen du. Nabarmentzekoa da hiriarren bilbean erakusten duen aldaera: angelu bat osatzen duen plaza txiki bat du banketxearen sarreraren parean, eraikinaren fatxadari esanahia emanez. Eraikinaren egungo urbanizazioa Elizalderen 1950eko proiektuari dagokio. Bi obrak etxebizitzaren eraikina eta banketxea Ramon Kortazar arkitektoarenak dira, baina estilo diferentean egin ziren. Azken urteetan Banco Guipuzcoanon eraberritze lan orokorrak egin dituzte. Lan horien ondorioz, kanpoaldeko antzinako erlaitzean kobrezko estaldura ikus daiteke. Etxebizitzaren proiektua 1916koa da eta 1921ean amaitu zuten eraikitzen, Urkolak eta Ezeitzak proiektatutako garai bateko Hotel du Palais eraikinaren zati bat okupatuz. Harrizko fatxadak eta hormigoizko egitura ditu. Beheko solairua eta goiko bost solairu ditu, hiru kantoiko etxeen artean eta bi mehelinen artean, guztira bost. Eskailera nukleo bakoitzeko etxebizitza bat edo bi ditu. Etxebizitzek sakonera eta azalera handia dute tarteko patio txikien laguntzaz. Etxadia bertako fatxadetan apaingarri txiki ugari daudelako nabarmentzen da, eragin frantsesa duen eklektizismo baten barruan, barra-barra apainduak baina kalitatezko materialekin. Eraikinaren goialdean apaindurako hainbat elementu aurki daitezke. Horien artean zeramikako estaldurak nabarmentzen dira. Etxabe komertzialen parte bat neurriengatik eta akaberen aberastasunagatik nabarmentzen da. Atariak konfigurazio zaindua eta eraikuntza kalitate handia ditu.

B mailako babes erregimen espezifikoa

- 1.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: arotzeriak.
- 2.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak, goialdeko apaindura emokatuak eta estaldura zeramikakoak, etxabe komertzialetako harrizko estaldurak eta ataria.
- 3.- Esku hartzeko murrizketa bereziak: esku hartze unitatea Hondarribia 01, Getaria 02 eta 02 bikoiztu, eta San Martzial 26rekin. Jatorrizko dorreak, kupulak eta mantsardak mantentzea. ataria aldaketarik gabe gordeko da, jatorrizko elementu guztiekin batera.
- 4.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.